

GRADU AMAIERAKO LANETAN GARAPEN IRAUNKORRERAKO 2030 AGENDA TXERTATZEARI BURUZKO ONLINEKO IKASTAROA

Ikasleentzako gida

UPV/EHUko graduko ikasleentzako prestakuntza-proposamena

- Ikastaroaren iraupena: 6 aste
- Beharrezko denbora: 37,5 ordu (1,5 ECTSren baliokidea)
- Ikastaroaren hizkuntza: euskara
- Irakasle-taldea: UNESCO Etxeko kideak eta UPV/EHUko Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzako kideak.

<https://www.ehu.eus/es/web/iraunkortasuna>

Eguneratuta: 2021/02/10

Gradu Amaierako Lanetan Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda txertatzeari buruzko onlineko ikastaroa

1. Aurkezpena

2015. urteko irailaren 25ean, Nazio Batuen goi-bilera historiko batean bildutako munduko buruzagiek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten. 2030 Agendak helburu globalen multzo bat jasotzen du, pobrezia-mota guztiak desagerrarazteko, desberdintasunak murrizteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, betiere inor atzean utzi gabe. Azken finean, gida unibertsal, zeharkako, integratu, zatiezin eta eraldatzaile bat da, datozen 15 urteetan garapen ekonomikoko, sozialeko eta ingurumen-garapeneko programak orientatuko dituena, edozein lekutan bizi garela ere.

UPV/EHUK Gradu Amaierako Lanetarako (GrAL) prestakuntzarako eta gogoetarako espazio bat irekitzeko aukera eman nahi du, eta GrALa 2030 Agendaren, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuen (GIH) eta helburuok osatzen dituzten 169 erronken ezarpen-ildoetan txertatzeko tresnak eskaini nahi dizkizue. GrALak 2030 Agenda erdiesteko tresna bat izan daitezen lortu nahi dugu horrela, GIHak aurrerapen globaleko agenda bat baitira, eta harekin bat egiten joan behar dugu, planeta eraldatu eta bidezkoagoa, zuzenagoa eta iraunkorragoa bihurtzeko.

Irakaskuntza-plan hau zortzi atal hauetan dago egituratuta:

1. Aurkezpena
2. Gaitasunak
3. Helburuak
4. Edukiak
5. Lan-metodologia
6. Lan-plana
7. Ebaluazioa eta egiaztatzea
8. Egutegia

Ikastaro hau GIHen eta 2030 Agendaren berri jakin nahi duten eta GrALean txertatu nahi dituzten graduko azken mailetak (3. eta 4. mailak) ikasleei dago zuzenduta.

Ikastaro hau GrALa prestatzeko prozesuan zaudeten ikasleei eta 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak ezagutu eta zuen lanetan txertatu nahi dituzuen ikasleei zuzenduta dago

2. Gaitasunak

Ikastaro hau amaitzean, parte-hartzaileak **gai izango zarete**:

1. Gure planetako egoera ekonomikoari, politikoari, sozialari eta ingurumen-egoerari buruzko ikuspegi kritiko bat izateko.
2. Garapen ekonomikoko, sozialeko eta ingurumen-garapeneko programak –besteak beste, garapen iraunkorrerako 2030 Agenda– orientatzen dituen ikuspegi integratu, zeharkako, zatiezin eta eraldatzaile baten berri jakiteko.
3. 2030 Agendako eta GIHetako tresnak identifikatu eta zuen GrALetan txertatzeko, lan horiek Agenda erdiesteko eta planeta eraldatu eta bidezkoagoa, zuzenagoa eta iraunkorragoa bihurtzeko tresna bat izan daitezten.

3. Helburuak

Ikastaroa berariaz diseinatuta dago, hura egiten duzuenok **ikaskuntza-helburu** hauek lor ditzazuen:

1. Jakitea zer nazioarteko prozesu instituzional gertatu den garapen iraunkorrerako 2030 Agenda onartzeko.
2. 2030 Agenda ezartzeko erabiltzen ari diren estrategiei buruzko informazioa edukitzea, batik bat mundu akademikoan eta euskal gizartean arreta jarrita.
3. Ezagutza-, eztabaida- eta gogoeta-espazio bat sortzea, 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak parte-hartzaileen Gradu Amaierako Lanetan (GrAL) txertatzen laguntzeko.

4. Edukiak

Ikastaroko edukiak sarrera modulu batean eta lau modulu tematikotan egituratuta daude eta honela banatzen dira:

AURRETIKO EZAGUTZEN MODULUA: Ba al dakigu zertaz ari garen?

- Garapen iraunkorra eta iraunkortasuna kontzeptuak eta haien dimentsioak.
- Garapen iraunkorra eta iraunkortasuna kontzeptuen historia eta bilakaera.

I. MODULUA: 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak

- Nazio Batuen Erakundearen (NBE) agendak 2015era arte.
- Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren aurrekariak: Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) eta Rio+20.
- 2030 Garapen Iraunkorrerako Agendaren eraikitze-prozesua.
- Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak (GIH).

II. MODULUA: Garapen iraunkorretako 2030 Agenda eta haren ezarpena

- 2030 Agenda martxan jartzea: ezarpena, berrikuspina eta jarraipena.

- 2030 Agenda martxan jartzea: potentzialtasunak eta mugak.
- 2030 Agendan inplikaturako subjektuak: GGKEak, sektore pribatua, akademia...
- 2030 Agendaren ezarpena gure lurraldean
- Garapen iraunkorrari ekiteko EHUagenda 2030

III. MODULUA: GrALa 2030 Agendarekin lerrokatzea

- Gradu Amaierako Lanak 2030 lerrokatzeko metodologia.
- 2030 Agenda eta GIHak integratzen dituzten sarrera eta ondorioak idazteko jarraibideak.

IV. MODULUA: GrALa 2030 Agendarekin lerrokatuta

- 2030 Agenda GrALetan aplikatzeari buruzko ikerketa eta GrALak Agendarekin lerrokatzeko proposamenak azaltzea.

5. Lan-metodologia

Ikastaro honen xedea 2030 Agenda eta GIHak GrALean txertatzea denez, modulu teorikoak zein praktikoak konbinatuko dira. Aurreneko hiru moduluek prestakuntzarako balio dute, eta haietan biltzen dira ikastaroko eduki teoriko gehienak; azken bi moduluak, berriz, praktikoagoak dira, eta GrALak 2030 Agendarekin eta GIHeekin lerrokatzera bideratuta daude.

Ikastaroa online garatuko da, eGELApi plataformaren bidez (<https://egelapi.ehu.eus/>). Plataforman horretan, ikastaroko material guztiak egongo dira eskuragarri: modulu bakoitzeko unitate didaktikoak, oinarrizko irakurgaiak, ikus-entzunezko materiala, jorratutako edukiei buruzko irakurgai osagarriak, eta hainbat web-orri interesgarriren estekak. Gainera, ikasleek zein irakasleek eztabaidatzeko eta iritziak trukatzeko foroak ere badaude.

Ikastaroko ikasleek foroetan eta planteatutako jardueretan gogoz parte har dezaten espero dugu, batez ere landutako gaien inguruko gogoeta eta ikasitako edukien aplikazioa sustatzeko berariaz diseinatu direnetan.

Ikaskuntza laguntze aldera, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Bulegoko kideek, UNESCO Etxeko kideek eta hainbat kolaboratzailek dinamizazio-lanak egingo dituzte, eta foroetako parte-hartzearen eta zereginen entregaren jarraipen-lana ere egingo dute. Gainera, irakasle-taldea prest egongo da ikasleek izan ditzaketen zalantzak argitzeko eta haien proposamenak prestatzen laguntzeko.

6. Lan-plana

Lan-plana lau modulu eta aurreko ezagutzen moduluaren inguruan dago egituratuta. Nahitaezkoa da lehenendabizi aurreko ezagutzak (0 Moduluak) barneratzea eta ondoren ezarritako ordenari jarraitzea (I, II, III, IV), modulu bateko edukiak aurreko moduluan jorratutakoetan oinarritzen baitira.

Modulu bakoitzeko lan-planean, dokumentuak irakurri, bideoak ikusi eta/edo gomendatutako web-orriak kontsultatu behar dira. Gainera, zenbait zeregin proposatzen dira: nahitaez egitekoak, eta parte-hartzaileen autoebaluazio eta ebaluazio jarraitua egiteko baliagarriak izango dira.

Hona hemen modulu bakoitzeko lan-plana, modu eskematiko batean azalduta.

MODULUA	ZEREGINAK
Aurreko ezagutzen modula	1. zeregina. Testa: garapen jasangarria eta jasangarritasuna.
I. modula	2. zeregina. Testa: Agenda 2030
	3. zeregina. Testa: jomugak eta GIH
	Foroa I. modula
II. modula	4. zeregina. Testa: Agenda 2030 ezarri, berrikusi eta jarraitzeko bitartekoak
	5. zeregina. Entregatzekoa: nire GrALak laguntzen dituen IGIHak hautatzea
	Foroa II. modula
III. modula	6. zeregina. Entregatzekoa: GrAL 2030 Agendarekin lerrokatzearen justifikazioa. <i>Zuzeneko BBC konexioa eta Foroa 3. modula</i>
IV. modula	7. zeregina. Entregatzekoa: nire azken produktua

Atazak egiteaz gain, parte-hartzaileek modulu bakoitzeko zuzeneko konexioetan edo, bestela, foroetan aktiboki parte hartzea espero da. Ikasturtearen hasieran gune bat irekiko da, eta, ikasleren batek beharrezkotzat jotzen badu, BBC bidez banakako tutoretza-saioak eskatzeko aukera emango du.

7. Ebaluazioa eta egiaztatzea

Ikastaroa osatzen duten aurreko ezagutzen eta beste lau moduluetan proposatutako zereginen helburua da parte-hartzaileek 2030 Agendan sakontzea eta Agenda horretako ikuspegia eta edukiak Gradu Amaierako Lanetan (GrAL) eta/edo etorkizunean egiten dituzten beste ikerketa-lan batzuetan txertatzeko gaitasunak bereganatzea.

Ikastaroa gainditzeko eta dagokion egiaztatzea lortzeko, behar-beharrezkoa izango da:

- Lau moduluetan proposatutako 7 zereginen %90 gauzatzea (7. Zeregina **derrigorrezkoa** izango da).
- Egindako zereginen %80 gainditzea.
- Zuzeneko konexioetan aktiboki parte hartzea, eta ezinezkoa bada, grabazioak ikustea eta horretarako prestatutako foroetan planteatutako gaiei buruz hausnartzea.

Ikastaroa gainditzen duten graduko ikasleek hautazko 1,5 ECTS kreditu baliozkotu ahal izango dituzte. Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21eko ebazpen bidez onartutako gradu-ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko arautegiko 11.4 artikulua araberako (EHAA,

119. zk, 2012ko ekainaren 19a), **hautazko kredituak** eman ahal izango dira unibertsitateko errektoreordetzek antolatutako prestakuntzarako kultur ekintzengatik (ikastaroak, mintegiak, biltzarrak...). Hor2021-03-10era retarako, ikastaroa gainditu osteko ziurtagiria aurkeztu beharko duzue matrikulatuta zaudeten ikastegiko idazkaritzan, horretarako berariaz ezarritako epean. Egin beharreko izapideak egin eta dagokion prezio publikoa ordaindu ondoren, kredituok espedientean jasoko dira.

8. Egutegia

Taula honetan, modulu bakoitza lantzeko gutxi gorabehera behar izango duzuen denbora dago adierazita.

Jarduera	Beharrezko denbora, gutxi gorabehera	Iraupena	4. edizioaren datak
Ikastaroaren aurkezpena			2021-10-18 BBC zuzeneko konexioa urriaren 18an
Aurreko ezagutzen modulua	5 ordu	0,5 aste	2021-10-18tik 2021-10-21era
I. modulua	7,5 ordu	1,5 aste	2021-10-21etik 2021-11-01era
II. modulua	7,5 ordu	1,5 aste	2021-11-01etik 2021-11-11ra
III. modulua	11 ordu	1,5 aste	2021-11-11tik 2021-11-22ra BBC zuzeneko konexioa azaroaren 22an
IV. modulua	6,5 ordu	Aste 1	2021-11-22tik 2021-11-29ra Azken lana ebaluatzeko banakako saioak egiteko aukera
Ikastaroaren itxiera			2021-11-29
Guztira	37.5 ordu = 1.5 ECTS	6 aste	